

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUIAKO UDALA

#### **Kobratzea landa eta hiri Ondasun Higiezinaren gaineko eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko 2025eko Zerga**

Nik, Unai Gutierrez Urkizak, Zuiako Udaleko (Arabako Lurralde Historikoa) alkate-lehendakaria,

Jakinarazten dut: 2025eko ekainaren 1etik uztailaren 31ra bitarteko egun baliodunetan (biak barne), larunbatetan izan ezik, ordaintzeko moduan egongo direla, borondatezko epean, landa eta hiri Ondasun Higiezinaren gaineko eta Ezaugarri Berezietako Ondasun Higiezinaren gaineko 2025eko Zergaren ordainagiriak.

Zerga horren eraginpekoek, ordainketa inongo banketxetan helbideratuta ez badute, Kutxa-banken edozein bulegotan ordaindu ahal izango dituzte zerga zorrak, aurkeztuz etxean jasoko duten ordainagiri abisua; abisua jaso ezean, Zuiako Udal idazkaritzan eskatu beharko da.

Zergapekoei ohartarazten zaie komeni dela zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte prozedurari emango zaio hasiera ordaindu gabeko kuotak kobratzeko, hala xedatzen baitute Zergen Foru Arau Orokorrek eta Dirubilketa Arautegi Orokorrek, eta dagokion errekaruarekin (ehuneko 10 edo ehuneko 20) kobratuko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Murgia, 2025eko ekainaren 16a

*Alkate-lehendakaria*  
**UNAI GUTIERREZ URKIZA**